


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko martxoak 12 / III. urtea / 66. zenbakia

Abortoa: behartutako kontzientzi eragozpena

Izan beharko luke, baina ez da. Nafarroan abortatzerik ez dagoela ez da inorentzat albiste, bertako bereizgarri naturalgisa onartu baita. Espainiako Gobernuak abortoarenegea zabaltzea azterzen duen bitartean, Nafarroan ez da lege hori betearaztea lortu. Haurdunaldia eten nahi duten emakumeek ez dute mediku bakar bat aurkituko abortoa egiteko prest, ez Osasunbidean, ezta osasun zentro pribatuetan ere. Begiak ixteagatik ez da arazoa desagertzen, ordea. Iaz zortziehun emakume nafarrek kanpora irten behar izan zuten abortatzera. Sakeletik ordainduta, jakina, Nafarroak osasun eskumenak bere gain hartu dituenetik nafarrek ez dutelako gainontzeko herrialdeetako osasun zerbitzu publikoetara jotzerik. Administrazioak ez du bere erantzukizuna onartzen: medikuak kontzientzi eragozle omen dira. Haatik, sekula ez dute aipatzen berez kontzientzi arazorik ez zuten medikuak presioaren bitartez bihurtu zituztela 'kontzientzi eragozle'. Are gutxiago presio hori dela medio emakumeek ezin dutela legeak aitortzen dien eskubideaz baliatu.



Metropoli forala



FELIPE RIUS

Tabernan muermora lotzen gaituen soka ikustezinez aritu gara segurtasuna, askatasuna eta antzeko hitz rinbonbanteak esanez, baina azkenean denok dakigu hartutako zerbezak ez dituztela gure ametsak ordaintzen. «Eromen pitin bat aski da» dio 'Psicosis-en' pertsonaietako batek, eta pelikula ikusi ondoren kale hutsetan barrena etxera nindoala —emakumearen eguna da, baina dirudienez ez dira ospakizunetarako orduak— urrats batzuen hots metalikoa aditu dut. Bi metrotako trabesti bat doa nire aurretik, eta hurbiltzean malenkoniaz kantatzen ari dela ohartu naiz, gauero kopek egun argitan izkutan dagoen errealitatea deskubritu baliote bezala. Hanka luzeak begiratu dizkiot eta gero beste nonbaitera begira aurreratu dut. Askotan pentsatu dut goizaldean leihoetan argi ugari eta siluetak somatzeak hiriaren osasun mentala adierazten duela, eta gaur dena itzalita dago, trabesia eta biok ezik lotan daude denak, seinale txar bat da. Agian etxeren batean Leonard Coheren 'The future' kanta entzuten ari dira, ni nire walkmanean entzuten ari naizen bezala, eta etorkizunak iraganak ukatu diena ekarriko duela imajinatzen ari dira nahiz eta batzuk hilketatz beteriko panorama beltz bat besterik ez iragarri. Zeinek daki, beharbada gizonetako nekaturgi daude emakumeen egunean lagunari gosaria eraman diotelako edo erne daude umea negarrez noiz hasiko zai, ezin dute beraz musikarik jarri. Auto bat pasatu da abia da haundiaz eta bere estereoko bakalao nazkagarriaren oihartzuna bazter guztietan sentitu da. Seguru nago nire atzetik doan trabestia biraoka hasi dela. Etxera iristean pintada berri bat ikusi dut, 'Izar beltza'; zerua begiratu dut eta ez da inon ageri. Ilunegi zegoen, eta zabor poltsa batean sartu dut oina. FOCSAkoak ez dira oraindik pasa, anbulantzia bat da kalean dagoen ibilgailu bakarra, eta ez dakit nire bila ote datorren. Ni hartzera badator, azkar ibili dadila, ordu gutxi barru fitxatu behar baitut. Eromen pitin bat aski da, bai, baina hilabete honetan kotxearen aseguru ordaindu behar dut. Hurrengoan agian.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Gontran Chafer artistaren erakusketa ikusgai dago Tafallako Kultur Etxean, bertako Kultur Patronatuak antolatutik. Martxoaren 17a arte zabalik egonen da erakusketa, bertan Valentziako pintore honen obrak eza-zagutzeko aukera dagoelarik.

Iruña Cormenzana artistaren erakusketa ikusgai izanen da datorren martxoaren 14a arte Iruñeko Aurrezki Kutxa Municipalak Rodezno Kontea kalean duen aretoan. Iruñean bertan jaiotako artista honen pinturak ikusteko lan egunetan arratsaldez eta jai egunetan goizez dago zabalik aretoa.

Jose Maria Arce Iruñeko errestitadorearen lanak ikus daitezke datorren martxoaren 28a arte Rodezno Konte kalean Aurrezki Kutxa Municipalak duen aretoan. Lan egunetan goizean eta jai egunetan arratsaldean dago zabalik erakusketa.

Emakumea Publizitatean gaiari buruzko erakusketa zabalik egonen da Nafarroako Museoan martxoaren 21a arte. Nafarroako Gobernuak Emakumearen Zuzendariordeak eta GITE elkarteak antolatutik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaia aztertzen du.

ERRAN DUTE

Gobernuko euskarazko matrikulazio kanpaina ia zkoa baino motelagoa da».

Iñaki Cabases
Eako parlamentaria

«Lehenbailehen ahaztu beharko dugu Athleticen aurkako partidua».

Iñigo Larrainzar
Osasunako jokalaria

«Agintariak irudia aldatzen saiatu badira ere, soldadutzak berdin jarraitzen du».

Juan Cantero
Soldaduen Defentsarako Informazioa taldeko kidea

«Gobernua denbora gehiegi galtzen ari da».

Mauricio Olite
HBko parlamentaria

Urkiaga-Adi-Aurizberri

Nafarroako beste punta batera joateko aukera izango dugu igande honetan, Napar Mendizale Federakundeak astero antolatzen duen mendi irteeraren bidez. Kinto eta Adi mendia izango da toki aukeratua, zoragarria; izan ere, bereziki udazkena aldera, oreinak arreske daudenean.

Kintoa mugan dago kokaturik, Alduden. Bi ibarrek inguratzen dute: Baztan mendebaldean, eta Erroibar ekialdean. Hegoaldean Esteribar dago, Eugiko urtegiarekin. Autobusa goizeko 8etan aterako da ohizko lekutik—Iruñeko autobus geltokia—eta Urkiagara joan beharko autobusez. Bertatik atera, baso eder batean sartuko gara, pagoak, haritzak eta pinudiekin. Ordubeten buruan, basotik atera eta hesi batekin egingo dugu topo, eta hor azalduko da, erraldoi, Adi. Ondoren, izugarritzko aldapa gainditu behar izango da, eta gailurra lortu ondoren, ikusmira aparta



izango dugu aurrean, Pirinioak, Baztango mendiak, Aldude...

Hala ere, oraindik ez da bukatu, Sorogaineraino jaitsi beharra

baitago, Iturumuru lepotik zehar. Hortik, pixkanaka, Aurizberrira. Bospasei orduko ibilbidea, baina izugarria, hala ere.

IKASTAROAK



Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo Udalak antolatutik. Ordutegia 9.30etatik 13.30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialarekin 6.700 pezetan eta materialik gabe 4.800ean.

Nafarroa eta Artea izeneko ikastaroa antolatu du GITE elkarteak datorren asteetarako. Datorren astelehenean, martxoak 15, hasiko da eta hiru asteko iraupena izanen du, aste bakoitzean bi eguneko saioekin. Arratsaldeko 8.00etan hasi eta 10.00ak arte iraungo du. Jose Vicente Iriartek zuzenduko du.

Ahozko eta idatzizko adierazpena gaiari buruzko ikastaroa antolatu dute GITE elkarteak

eta Arturo Kanpion euskaltegiak. Hiru saio izanen dira, larunbatean, bihar, hilak 13, hasi eta hurrengo biak barruan. Goizeko 9.30etan hasi eta ordu biak arte iraungo du. Bittorio Lizarraga irakasleak zuzenduko du.

MENDI IRTEERAK



Txindoki mendira joateko aukera eskaintzen du igande honetarako, hilak 14, Sakanako Men-

digoizaleak taldeak. Goiz goizean atera eta egun osoko bidaia izanen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 56 36 16 telefonora deitu behar da.

HITZALDIAK



Telebista eta Bideo Jokoen eragina umeengan gaiari buruz ariko da datorren asteartean, martxoak 16, Jesus Mari Mujika Jauna, Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Hitzaldia Lizarrako Ikastolak antolatu du arratsaldeko 7.00etan.

BESTELAKOAK



'Ama Dablam Espedizioa' izeneko proiektzio emanaldia izango da gaur, martxoak 12, Nafarroa Kirol Elkartearen aretoan, Jarauta kalean. Elkarteak antolatutik, arratsaldeko 8.00etan izanen da, Carlos Goñi eta Iñaki Villanueva montaiaren egileek zuzenduta.

BERTSO SAIOAK



Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariak ariko dira bihar larunbata, martxoak 13, Leitzako Olalde jatetxean. Bertso afaria gaueko bederatzietan izanen da.

Angel Mari Peñagarikano eta Mikel Mendizabal bertsolariak ariko dira gaur ostirala, martxoak 12, Barañango Haizea Elkartearen.

ADI !

ASTEKO PERTSONAIAK


Migeltxo Saralegi



Harrijasotzailea

Oraindik 24 urte baditu ere, Migeltxo Saralegi leitzarrak 310 kiloko harria jaso zuen joan den igandean bere herrian, eta oso pozik azaldu zen. Hasieratik indartsu ibili den gaztea izan da, eta orain ere horrela segitzen du. Animo aldetik ere, alaitsu dabil, eta datorren udaberrian Iñaki Perurena maisuaren markarik hoberena hausteko itxaropena agertu zuen lehengo egunean Saralegik, hau da, 316 kiloko harria. Garbi aski dago oso momentu onean dagoela, eta berak horrela esaten badu, munduko harrijasotzaile indartsuena izan daiteke aurtan.


Cesar Otxoaerrarte



Intsumisoa

Pasa den asteazkenean sartu zen Cesar Otxoaerrarte olaztiarra Iruñeko kartzelara, borondatez gainera, intsumiso izateagatik epaitu ondoren epaileak urtebeteko kartzela zigorra ezarri baitzion. Hala ere, baldintzapeko askatasuna ez onartzea erabaki zuen, «kartzelan dauden intsumisoei elkatasuna adierazteko» eta dagoeneko barruan dago. Berarekin batera bere herriko beste bi gazte sartu ziren, Carlos eta Iñaki Lukin anaiak, eta Sakanako beste bat, Javier Aiestaran Baikaikuko alkatea. Bostgarrena Roberto Tofiño iruinsenmea izan zen.

Jose Antonio Gaiarre



Bardeetako Batzarrekoa

Orain dela hilabete batzuk Jose Antonio Gaiarre eta Bardeetako Batzarreko gainontzeko kideek Bardeetara sartzea debekatzen zuten kartel batzuk jartzea erabaki zuten, «ingurugiroa babesteko», Gaiarrerren esanetan. Jokaera honek salaketa eta kezka ugari sortu zituen, eta Gobernuak lehendakariordeak berak azaldu zuenez, legez kanpoko erabakia izan zen. Protesta askoren ostean, Batzarrek jarritako kartelak kentzeko akordioa onartu du, eta igande honetan kartel horiek kendu eta beste batzuk jarriko dituzte, 'Ongi etorriak Bardeetara' diotenak.

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



Heleta

Bertsolarien bigarren txanda

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Etxarrin jokaturako lehendabiziko saioaren ondotik, Heletak (Nafarroa Beherea) jasoko du igande honetan, hilak 14, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bigarren saioa, arratsaldeko lauretatik aurrera. Saio berezia hau ere, hainbat arrazoirengatik. Izan ere, txapelketa Jean Pierre Mendibururen herrira itzuliko da, 1986an egon ondoren, eta bertan Iparraldekoak eta gazteen arteko norgehiagoka izango dira, aurregi eta ahots berriak entzuteak sortzen duen jakinminarekin. Halaber, Kexux Arzallus, iaz kanporaketetan puntu gehien ateratu zuena, berriro aditzeko parada izango da, eta hori beti eskertzekoa izaten da Nafarroako Txapelketan.

Gazteen artean, eta Etxarrin Amaia Telletxeak, Xabier Silveirak eta Manu Gomezek egindako saio polita oraindik gogoan dugula, Iñigo Olaetxea lesakarra aterako da kantatzera lehendabiziko aldiz, eta bere ondoan Urko Atxutegi eta Estixu Arozena 'gazte beteranoak'. Ikuspuntu eta gogo berriak antzemateko parada, beraz, Heletan.

Estixu Arozenak saio franko egin du urtean zehar, eta iaz maila txukuna eman bazuen, askok espero zuena baino hobea, aurten gazteen artean onena izan daiteke. Nolanahi ere, tokia ez da aproposena berarendako, eta iaz Xalbadorri Silveirarekin gertatu zitzaiona ere gerta dakioke. Iñigo Olaetxeak badauzka bere gorabeherak, baina egun ona ateraz gero, bertso dotoreak botatzeko gai da. Urko Atxutegik ez du apenas abestu urte honetan, ikasketa kontuak zirela eta, eta izena ere azken momentuetan eman zuen.

Haien ondotik, mugaz bestaldeko bertsolarien punta-puntaok. Mixel Aire 'Xalbador' urepeldarra, Jean Pierre Mendiburu heletarra, Fermin Mihura azkaindarra, eta, gorago aipatu bezala, Kexux Arzallus sortzez bidaniarra baina egun Hendaian errefuxiatua dagoena. Nafarroan kalitate handiko bertsolariak.

MENDIBURU ETA XALBADOR Arzallusek bertso saio ederra egin zuen duela bi urte Izuran, eta iaz punturik gehien atera. Aurten motibazioa izango du oztoporik nagusiena, bestelaz onenen artean izateko maila nahikoa baitauka. Eta Xalbador eta Jean Pierre Mendiburu, gaur egungo bertsolari baxenafar pe-toenak ditugu. Iaz heletarrak ez zuen parte hartzerik izan gaitzak jota zegoela eta, baina ongi aski daki zer den bertso saio politik egitea. Urtebete darama kantatu gabe, baina mail ona erakutsiko du berdin-berdin. Xalbador, antzera: saio falta. Bertsolaritzak oraindik ez du izan bestaldean Hego Euskal Herrian izan duen gorakada, eta esan daiteke euskal kulturaren ez duela hemen sumatzen den indarra. Arzallus eta Alkhat gogor ari dira lanean bertso eskolekin, baina emaitzak, bai gazteen aldetik bai bertso saioen ugaltzeari dagokionez, etortzeke daude oraindik.



Xalbador, goian, eta Arzallus eta Mendiburu —erdian Arozena— izango dira Heletan.

Baztan

Basoen landaketarako dirulaguntzak

P.U. / IRUNEA

Nafarroako Basoen Elkarteak —Foresna-Zurgaia— 1992ri dagokion baso landaketarako dirulaguntzak bideratuko ditu hil honetan zehar. Baztan, Malerreka, Leitza eta Araizko udaletan ariko dira elkarteak partaideak, ondorengo egutegiaren arabera: martxoak 15: Zugarramurdi; 16:

Baztanen; 17: Etxalarren; 18: Donezteben; 22: Lesakan; 23: Goizuetan; 24: Igantzin; 25: Arantzan; 26: Beran; 20: Leitza eta 30: Arriban (Araitz).

Landaketarako dirulaguntza hauek eskuratzeko udalaren baimena, eskrituren fotokopia, banketxe edo aurrezki kutxaren zenbakia, eta lur sailaren plano eraman beharko dira, eta ordu-

tegia goizeko 9etatik 14ak bitarte izango da. Informazioa gehiago behar izanez gero, 13 24 96 telefonora deitu beharra dago.

Elkartea iaz sortu zen, basoen inguruko gaiak aurrera eramateko, eta honen bidez landaketak egin nahi duenari laguntza eta bideraketa lana eskeintzeko asmoa dago, legez onartuta dauden dirulaguntzak jaso ahal izateko.



BELATE gainean kamioentzako seinaliztapen berria paratuko du Nafarroako Gobernuak, bertan izaten den trafiko istripu kopurua handia dela eta. Hasieran larrialdietarako irteera bereziak ere aipatu zen irtenbide modura, baina azkenean Herrilan Sailak uko egin dio aukera honi, lurraren malkartasuna dela eta. Halaber, Baztango udalak Marin erreka etxebizitzari telefonoa paratzea luze gabe egingo dela adierazi zuen Patxi Oiarzabal alkateak, puntu horretan izaten baitira istripu gehienak.

LIZARRAK musika banda izango du luze gabe, bertako udala eta Josetxo Sanchez Salsamendi musikagilearen artean sinatutako kontratori esker. Duela hogeitamar bat urte desagertu zen Egako hirian zegoen banda bakarra, eta oraingoak 25 urtetarako kontratua sinatuko du ekitaldi ofizialak, jaiak eta abarretarako. Musikariaren debuta, heldu den maiatzean izango den Puikó Birjinaren egunean izango da.



BALTERRAko UPNko udal taldeko zinegotziek kereila paratu dute alkatearen aurka, etxebizitza, lur sailak eta lanak egiteko baimena ematean izan diren irregularitasunak direla medio. Epaitegian aurkeztutako kereilan azaltzen denez, gertaerak 1988an jazo ziren, etxearen jabeak Ondasunaren Erroldan sartzeko baimena eskatu zuenean. Orduan aitortu ziren metro karratuak, ordea, jabeagoak duen baino franko gutxiago ziren, eta zinegotzien arabera, alkatea jakinaren gainean zegoen, baina ez zuen ezer azaldu ez udaletxean, ez zinegotzien aurrean ere.

LUZAIDEko komunalaren afe-
rak ere ez omen dauka akaberririk. Jakina denez, Juan Pedro Arrosagarai alkateak Ibañeta gainean lur sail komunalak desafektatzeko erabakia hartu zuen, bertan hotela eraikitzeko, eta gero bere semeari eman zitzaion lizentzia. Horrek erantzuna izan zuen zenbait bizilagunen aldetik, eta duela gutxi errekurtsoa paratu zuten Nafarroako Epaitegi Administratiboan. Salaketaren eragileek diotenez, berrehundik gora sinadura jaso dute herrian akordioaren aurka, baina alkateak aste honetan adierazi zenez, udaletxean soilik zazpi sinadura zeuden jasota. Alkateren arabera, komunala desafektatzeko akordioa aho batez onartu zen.

Xalbador eta Mendiburu betiko arazoarekin datoz aurten ere txapelketa: urtean zehar duten saio falta, alegia. Mendiburuk urtebete darama saiorik egin gabe, eta Xalbadorrek hiru bat abestuko zuen.



mintzoak

«Neri ez, ezinezkoa da»

A.B. / IRUÑEA

Bere lehendabiziko erreakzioa dena ukatzea izan zen. «Neri ez, ezinezkoa da». Baina botikan egin zizkioten emaitzek argi eta garbi erakusten zuten: haurdun zegoen. Bere egoera berbera topatzen duten gehienak bezala, frogatuta ez zen bere biko-tearekin joan, lagunminarekin baizik, baina emaitzak jaso orduko, mutikoarekin erabaki zuten: abortatu nahi zuten. Bera izan zen iaz Nafarroatik kanpo abortatzera atera behar izan zuten 800 emakumetako bat. Trantze hartatik pasa behar izan zuten neska gehienak bezala, ez zuten inolako preserbagailurik erabili, eta ordurako zazpi aste pasa ziren. Aste bat falta zitzaion, beraz, legez onartuta dauden zortzi asteren barruan abortatu ahal izateko. Frantzia hiru hilabete dira, eta Ingalaterran, bost.

COFESera joan ziren orduan biak, etan han, inolako frogarik egin baino lehen, sexologoarekin elkarrizketa izan zuten. Horren bidez, hartu behar zuten erabakiaz ziur zeudenentz frogatu nahi zuten, eta ondoren etorri ziren azterketa berriak. Hauek baieztatzen zuten zuzen botikakoak, eta, neskak azaltzen duenez, orduan izan zen kolperik gogorretakoa. «Botikako datuak jaso ondoren oraindik ez duzu dena sinisten, baina gero, kontsultan baieztatzean, inpresio gogorra da. Beraien esanetan, kolpea leuntzeko, sexologoarekin beste elkarrizketa izan genuen orduan». Elkarrizketa eta errebisio hauetan bikotearekin egon beharra azpimarratzen dute sexologoek, emakumeak ondoan besteren laguntza oso beharrezkoa baitu orduan.

«**DENA OSO AZKARRA**» Bertan eman zizkieten helbide eta telefono guztiak, eta hortik aurrera beraiek egin behar izan zuten dena. Hor hasten da dirua lortu beharra —30.000 pezeta— eta egun bat hartu beharra —gehienak Donostia edo Bilbora bidaltzen dituzte, baina baitaartzelona edo Madrilerera ere—. Lanean edo ikasten ari baldin badira, azalpenak eman behar, soilik inguruko kontatu, bidaia antolatu...

«Klinikan beste elkarrizketa eta azterketa egin zidaten, eta dena oso azkarra izan zen. Abortatu ondoren, hamar bat minutu egon nintzen, atsedena hartzen, eta kalera ateratzean, berriro kolpea datorkizu burura». COFESen garbi azaldu zioten fisikoki ez zuela ondoriozko izango, eta psikologikoki, bakoitzaren egoera pertsonalaren arabera. Aste baten buruan, beste azterketa bat egin eta orduan eman zioten ordua eta eguna planifikazio eta segimendu zehatzagoa egiteko.

● Etorquina deitzen zaio euskeraz kanpotik etorritakoari. Hemengo deitzen zaio, halaber, mendi-tarte eta bailara hauetan bizi den fauna izugarri honi. 'Hemengoa' noski eufemismoa besterik ez da, fauna zaratatsu honetako abereak ez definitzearen egin ohi den jauzi semantikoa, ze hemen, ohian tropikal joriña bailitzen denetarik aurkitzen baita: nafarrak, navarroak, baskoak, vascongadoak, riberos eta herriberakoak, basko euskaldunak, baskoak soil soilik, euskaldunak besterik gabe, baskoviejos, euskaldun berriak eta zaharrak eta abar eta abar luze bat. Jakina da zenbat buru hainbat aburu.

Ez ditut RH eta burmuinak paiseitzera aterako, zera horietan gehiegi sinisten ez dudalako alde batetik, Arzalluz jaunaren parea, utikan! jar nazaten pentsatzeak berak dardarazioz betetzen naudelako bestetik eta batez ere. Afera beste bat da.

Maddalen Iriarteren 'Ados' saioan euskaldunek etorkinei egiten genien afera zen eztabaidan zegoena, eta izan ere, hartan txehartu nintzen gu, enetzat zalantzak zalantza arazoa argi dagoela uste dut, gu, beraz euskaldunok, euskeraz mintzatzen garenok, bertokinak besterik ez garelara, hemengo etorkinak alegia.

Gizarte hau gettotan antolatua dago, batzuz arrazak mugatzen ditu, bese batzuz sexuak, edo politikak edo janzkerak, edo... gu, hemen Iruñean gaur, hizkuntzak definitzen gaitu, trikimailu ulertezin horretan mintzo gara alegia, marzianidade ankerrenaren eremutan ibiltzen garenok, nola bestela mintza gaitezke horrelako barrabaskerian.

Hortara, gettoan antolatutako guretako bizi gara, Alemanian, bigarren guda aurretik Berlingo gettoan bizi ziren judutar haien pareko, euskal hitzez erabakitzen ditugu gure ekintza txikiak ere, euskal jan, euskal jo, euskal edan. Eta Jainkoak libra gaitzala gure eskubideez —omen— baliatuz, ustez gurea dena aldarrikatzeaz, ze orduan bai, gettoari —getto gutzietan— egokitzen zaizkion legeak ezarriko bait dizkigute, hala nola itxitasuna, ikusmira eza, eta batez ere, demokraziaren izenean aipatzen den errespetu eza.

Aintzina hemengo jendeak euskeraz mintzatu izana kasualitate istorikoa baino ez da, frantsesetasunaren, Del Burgok dixit, ezaugarri salagarriena eta intolerantziaren eztena, nabarri moaren balore errespetagarriak erasotzeko prest. Eta horrela potereak ergel bihurtu gaitu, eta euskara bere herritik urrun dagoen magrebiar batentzako hasisha bezain kolokagarri dugu, edo desio sexuala desbideraturik, desbidera daitezkeen zeozer izatekotan noski, libidoa zeruraino igotzen zaigu poxi edo hiztegi zaharretako hitz galduren bat norbaiten ahotan entzutean. Gure

buruaz eri gaude, eta eritasun hori da aldi berean gure salbaziorako bidea eta hipokondriaren sintoma, mendizale puntakoenak egin dezakeen trabesia eta Eritetxeko gela zurien artean bizi gara. Izan ere, sintomak adierazteko dugun abilitate eta behar horrek baitarama bere baitan, hazi batek eramanen lukeen moduan, gaur egungo gure izaera. Irauteko indarrak irentsiko bagintu bezala. Baina gu, beste etorkin batzuz ez bezala ez gaitu herriminak sendatzen, ez dugu itzuleran hartuko gaituen lurralderik, guk paradisu fantasmala bihurtzen ari den ametsa besterik ez dugu. Hori eta, nire lagun batek dioen bezala, gettoan bizi garenok goxotasuna, beste izenez desberdintasuna dei daitezkeena.

Hortan exilioko literatura egiten dugu, Joxe Agustin Arrietak esaten duen bezala jenero epis-

tolarrekoa, idazleak salbu jende gutxi irakurtzen baitu hemen, edo New York-eko txinatarrek Chinatown-en argitaratzen duen parekoa dugu Euskaldunon Egunkari hau, eta nire amonak mintza duen euskerak altxor preziatuena, berreskuratu eta aldairean jarririk besteen moldeak mespretxatzeko balio didan aitzaki ederra, hautsi eta traditu ez daitezkeen ondare kulturala, una de las lenguas mas antiguas de Europa, hi, (horrela bada eutsi egin beharko zioagu, hi, guregatik ez dadila izan), telebistaren gainean edukitzeko hornidura polita.

Bertokinak gara, kontradizioa, ezbaia, alegia. Edozein gettok bezala iraun dezagun kodifikazio zorrotza eta indartsua egitera beharturik gaude gure eremuak markatzera, azalean ez daramatzagun identitate zeinuak azpi-

marratzera alde batetik, baina getotik ateratzeko eta hedatzeko eskubidea eta bokazioa dugu bestetik; iragana alde dugu, oraina, ordea, aurka. Denik eta hortxe iraganari diogun lilara, hortik maiz literatura egitean arkeologia egiteko dugun grina temati hori edo sus-traiak aldarrikatzeko joera, zeren eman ematen baitzaigu iharduera, ez ordea izaera.

Ze eginbide dugu? Ez dakit, dena dela hemen, gaur, karriketaren zehar dabilzan magrebiar, beltz, hego-amerikar eta abarrek antza handia dugu; bertokinak kontuz 'Extranjeria legearekin'.



Juanjo Olasagarre Idazlea

¿Zuieres Elegir Euskara? Euskara Aukeratu Nahi Duzu?



El convencimiento de que una educación bilingüe favorece el desarrollo y amplía los horizontes culturales y humanos anima a muchos padres navarros a matricular a sus hijos en euskara.

¿ELEGIRAS EUSKARA TU TAMBIEN?.

Hezkuntza elebidunak hauraren garapena bultzatzen duela eta kultur eta giza ikuspegiak zabaltzen dituela sinetsita, guraso nafar asko beren haurrak euskeraz matrikulatzera animatu dira.

ZUK ERE EUSKARA AUKERATUKO DUZU?.

Para más información dirígete al Servicio de Euskara del Departamento de Educación y Cultura - Tfno. 10 65 87
Argibide gehiago nahi baduzu, deitu Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Euskara Zerbitzura - Tfnoa: 10 65 87

Gazteendako Zokoa

Euli-txori grisa

Muscicapa striata
Ibaiertzetan
Nafarroan urria
Zuhaizti umeletan



Eulizalea

Oso egoera ohizkoa eta ezaguna izaten da honako hau: ibaiertzetan, zuhaitz baten adar batean tente, txori gris bat adi-adi dago bere inguruari begira. Noizbehinka, hegalkak eta isatsa astintzen ditu, eta tarteka ere, hegan hasten da. Trebeziak eta arin, bertatik igarotzen zen intsektua harrapatzen du, eta ondoren atalaia berbera itzultzen da. Euli-txori grisa da, merezimendu osoko izeneko txoria, alabaina.

Kantua ez da bereziki erakargarria, eta errepikagarria eta azkarra da. Migrazio garaian, baina, isilak dira, eta horrek desberdintzen ditu dagoeneko errute garaian edo tokian kokaturik daudenekin. Zuhaitz argietan eta, askotan, herri edo etxe bakarren ondoan bizi dira, baina esan daiteke oso ongi moldatzen dela edozein ingurutan. Kabia paratzeko zuhaitzen zuloak, hormak, baita borda eta txabiskeak ere aukeratzeko ditu.

Europar ugaria baina Nafarroan urria da, eta oso era irregularrez dago zabaldua lurralde osoan zehar. Azken datuek beherakada garrantzitsua iragartzen zuten. Udaberriko migratzailea berandu samar heltzen da, eta oraindik apiril amaieran eta maiatzaren erdialdean ikus daiteke gure bazterretan.

Joxefaren baserrian

AINARA FERNANDEZ

Orain dela bi urte baserri batera euskara hobetzeko asmoz joan nintzen uda osoa pasatzera. Egun eguzkitsua zen, oroitzen naiz oso ondo herriko autobus geltoki zahar horretako banku batean eserita nengoela ezezagun baten zain. Baserriko gizona edota seme zaharrena nere bila etorriko zela neukan buruan. Geltokiko atea irekitzen zen bakoitzean, zertxobait sentitzen nuen nere sabelean, eta hori bai, gero eta gehiago, nekaten hasia nintzen hainbeste itxoiteaz. Bapatean gazte bat hurbildu eta kortesi handiz galdetu zidan:

—Barkatu andereño, zure izena Maialen Garoa al da?

—Bai, ni naiz. Baserriko jabearen semea haiz?

—Ez, baserrian Joxefa andereñoa bizi da, bakarrik. Ni Peio naiz, herriko postaria, Joxefaren lagunmina.

«Ai ene!» —pentsatzen nioan baserriko bide zaharretik— «zer nolako baserria izango da hau? Noiztik emakume bakar batek baserriko lan guztiak egiten ditu? Atso neskazahar horietako bat izanen da? Ez dut uste, zer dauka egiteko atso batek baserri batean, herriko bosten bat kilometrotara?»

Bidea luzea izan arren, nahiko aguro iritsi ginen. Peio mutil jatorra iruditu zitzaidan. Joxefa aurkeztu eta gero herrira joan zen, berandu baitzen.

Joxefak 80ren bat urte izango zituen, emakume pottoloa zen eta irudi atsegina zeukan.

—Barkatu —goizean, kafea hartzen geundela galdetzen hasi nintzaion; ailegatu nintzenetik hilabete bat pasata zegoen jadanik— Orain arte ez naiz ausartu galdera hau egitera, baina... Nola da zu hemen bakarrik bizitzea? Baserri honetan urte pilo bat zeneramala esan zenidan, nola eramaten zenuen orain dela berrogei urte hau dena zuk bakarrik?

—Neska jatorra zara, Maialen. Normalean jendeak ez ditu horrelako zehazkizunak nerekin izaten, dena jakin nahi dute. Begira, ez



diot hau inori kontatu, baina zuri bai, kontatuko dizut.

—Mesedez..., ez, galdera inozo bat besterik ez...

—Ez, lasai, gogoak ditut dena botatzeko. Ordua da: nahiz eta sinistezin iruditu, ezkondu nengo, edo nago, esan beharko nuke, baina orain dela berrogei urte bakarrik bizi naizela. Hiru seme-alaba ditut, bi alaba eta seme bat, orain dela berrogei urte ikusten ez ditudanak.

—Joxefa, eta zer dela eta...

—Lasai, aurrera noa. Urte horietan oso emakume gaiztoa nintzen, gaiztoa esan baino, nola da, dena neretzako nahi nuen...

—Diruzale, berekoia...— andrearen begietan hitz zehatza ez zuela aurkitzen ikusi nuen eta launtza ematen saiatu nintzen.

—Bai, hori bera: nerekoia. Nere senarrarekin ezkontzeko arrazoi bakarra baserria izan zen, badakizu, beste garai bat zen, nere gurasoek ez zuten asko eta... Ezkontzaren ondorioz nere Ferminek seme bat nahi zuen. Bat izan, neska. Bigarrena ere neska. Baina Ferminek mutila nahi zuen. Jainkoari esker hirugarrenean Juan jaio zen. Hori da dena. Senarrari eta seme-alabei bizkarra eman nien beti, herrira jeisten nintzen egun osoa eta gauean baserriera bueltatu. Eta noski, garai horietan hori pekatua zen, badakizu. Baina

neri berdin zitzaidan, ongi pasatu nahi nuen nere lagunekin eta baserria gainera aspergarria zen, lan ta lan egun osoa... Hogeitaz iraun zuen egoera honek. 41 urte eta 3 hilabete nituenean, Fermin, Juan, Miren eta Aranzazu hiri aldera joan ziren ni hemen bakarrik utzita.

Irribarre gozoa bota zidan, nere ahoa zabal-zabal eginda baitzegoen.

—Eta hori da dena, gazte. Hori hor nere istorioa. Ezetz inoiz horrelakorik aditu?

—Benetan, ez. Nahiko gogorra izango zen...

—Bai, baina hori Jainkoaren zigor bat besterik ez zen izan, merezitakoa. Haiengatik sentitzen dut, baina gauero otoi egiten dut nere seme-alabak sendo eta arazorik gabe hazteko. Zuk pentsa, handienak 20 urte izango ditu...

Bere aurpegi goibelean bakarrik egoteko nahia somatu eta menditik bueltatxo bat ematera joatea erabaki nuen: «Gutxienez —pentsatu nuen— nahiko ongi jasan du, Jainkoak horrela nahi izateak kontsolatzen badu... Ohartu haiz, Maialen —bapatean ideia zoragarri bat bururatu zitzaidan— lehenengo euskal emakume feminista ezagutu dunala?» Eta ideia horrekin bueltaka, herrirako bidea hartu nuen.



BASAJAUN

Bizidunen patenteek era gin handia dute baita aniztasun genetikorekin gainean ere, honen kalitateak nabarmen behera egingo duelako. Izan ere, soilik bakar batzuek kontrolatuko dituzte errekurto genetikoa, eta hauen zirkulazioa asko murriztuko da. Honen bidez, guztion ondasun bat hondatuko da. Ondasun hori enpresa bakar batzuen eskuetara igarotzen bada, aniztasun genetikoa hori galdu egingo da neurri handi batean, eta gizarteak ordaindu beharko du horren truke.

Alde kaltetuenetakoa Hirugarren Mundua izango da, jasaten ari den egoeratik ateratzeko informazio zientifikoa eta teknologikoa ukatuko baitzaio. Espezie bizi hauek patentatzeko eskubideak Hegoaldeko nekazariak desagertzeari ekarriko du, hauek gogor ari baitira aniztasun genetikoa eutsi nahian. Bertako industrietan ez dute inolako eskubiderik izango produktu biologikorik patentatzeko, eta legalizazio horren ekonomia ondorioak jasan beharko dituzte. Hori dela eta, kanpo zorra berriei aurre egin beharko diete. Halaber, kontsumitzaileen elikaduraren gainean kontrola jarriko dute patenteok, eta horniketa bakar batzuen esku izango da. Hau oso larria da, populazio osoa horien menpe egongo baita.

Bizidunak patentatzea, gutxienez, gizalegearen kontrakoa eta oso tristea da, teknikaz eta zientziak egiten den erabilera okerra dela eta. Enpresa batzuek biztanlearen elikadura kontrolatu ahal izateko eskubidearen aurka doa, eta, ondorioz, kontsumitzailearen elikadurari ezaren menpe egon daiteke, produktuen arteko aukera, praktikan, ez baita izango.

Jenero Xumekoak


Nortasun seinaleak

Herri bakoitzak badu bere nortasuna. Zaldiak eta hesiak Beltzuntzeri dagozkio. Borroka garaian Gartziriain loratzen da. Bapo jateko Untzu. Urre gorriko bizarrak aristregitarrek dituzte. Oilakarizketan zima ederreko haritzak. Baina Martzelogradok baditu, Nortasun seinale gisa, Gizona eta Mintzoa.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUI: 1.- Labore mota. 2.- Bi. Lapurdiko udalerria. 3.- Abere esne emaleak. Modu atzikiak. 4.- Arrazoa. Ukapena. 5.- Baldintzetan. Zintzo. 6.- Ahotsa. Aranondoaren fruitu. 7.- (Zah.) Zakur. Zu zeu. 8.- Guraize. Hitz grekoa. 9.- Oilo gaztea.

GOITIK-BEHERA: 1.- Joan den urtean. Sugetzara. 2.- Marrazki nahiz idazki ulergaitz. 3.- Bokala. Joaki dira. Titanioaren sinbolo kimikoa. 4.- Moilea. Ez ezin. 5.- Aho, hitz elkartetan. Gabezia. 6.- Toki. Azkar. 7.- Interjekzioa. Emakume izena. Bostehun. 8.- Hegazti harraparia. 9.- Euskal alderdi ohia. Alderantziz, zango atal.

[N-61]

Zaharrak berri

Txanpon txarra etxera bihur.

Gauza txarrik ez du inork inoiz nahi.

Larraun

—Aita, itsasoko ura, zergatik da gazia?

—Zergatik izango da ba, umea: barruan makailuak ibiltzen direlako!

Bizi Bizian

Nafarroan eraikiko den presondegi erraldoia presoiei eman beharreko laguntza soziala eta bergizarteratze prozesurako kaltegarria izango da, gizarte laguntzaileak abokatuak eta arlo horretan ari diren talde guztien arabera. Beren bizitokitik aldendurik, jendea pilatzeak —mila presoendako eginak dira espetxe berri hauek— traba handiak paratuko dizkio talde guzti hauen lanari, eta eraikinaren beraren azken helburua —presoaren gizartratzea— galeraziko duela lakoan daude. Hego Euskal Herrian eraiki behar diren bi presondegi erraldoi hauen kontrako protesta egiteko plataforma osatu dute Salhaketa, SOS-Arrazakeria, KEM, Oasis, Kakitzat, Askagintza, Gizaki Helburua, HIESaren kontrako Batzordea eta Abokatuen Elkargoa taldeek, eta Nafarroako udaletan mozioak aurkeztuko dituzte beren burua 'kartzelen kontrakoak' izenda ditza-ten.



Iruñeko presondegia bota eta Donostiara bitarteko errepede ondotik eraikiko da berria.

JOXE LACALLE

Espetxe berria: are okerrago

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Espainiako Gobernuak 1991ko ekainean oniritzia eman zion lau urteren buruan 18 presondegi berri eraikitzeko asmoari, 160.000 milioi pezetako aurrekontuarekin. Horren bidez, Hego Euskal Herrian dauden lau espetxeak —Martutene, Basauri, Langraiz Oka eta Iruñea— desagertu eta beste bi eraikiko dira Nafarroan eta Bizkaian, oraindik ezagutera eman ez diren tokietan. 100.000 metro karratuko izango da bakoitza, mila bat presoentzako edukiera izango dute, eta oraingo presondegietan dauden pilaketa arazoak saihestu nahi dira horren bidez.

Kritikak ez dira berandutu, eta Nafarroan presoan inguruan dabilzan taldeek egitasmoa hasieratik gaitzetsi egin zuten. Bi izan dira kritika nagusiak: Nafarroak dituen beharrendako sobera handia izango dela presondegi berria, eta presoan bergizarteratze ahaleginean eragingo dituen oztopoak lehen baino latzagoak izango direla. Salaketa honi irtenbidea emateko sortu den plataformak udaletxean horren kontrako mozioak aurkeztu eta arazoa plazaratu nahi du.

«Jendearen pilaketa eragiten duen guztiak, langile soziala naizen aldetik, beldurra ematen dit», dio Javier Asiain Nafarroako Laguntzaile Sozialen Batzordekoak, «eta mila pertsona batzuek horrelako presondegi erraldoi batean asko zailduko du behar-beharrezkoa dugun presoekin harremana eta ezagupena». Angel Ruiz de Erantxun Iruñeko Abokatuen presidentek ere presoan bergizarteratze prozesuan horrek sortuko dituen oztopoak azpimarratzen ditu. «Es-

petxearen helburua bergizarteratzea da, eta horretarako ahalik eta presondegi txikiena, orduan eta hobeto. Hori da ikasgela bat bezala. Irakaskuntzan aritu denak ongi aski daki hobeki lan egiten dela 150 ikasleko multzo batekin 800eko batekin baino».

Presondegi berriaren kokapenari buruz izen batzuk —Itza Zendeke Saratsa eta Aldaba, Oltza Zendeke Ororbia, baita Lekunberri inguruak ere— atera dira dagoeneko komunikabideetara, baina isiltasuna nagusi da Es-

petxeetako Zuzendaritza Nagusian. Nolanahi ere, Iruñea eta Donostia bitarteko errepede inguruan izango dela ziurtzat jotzen dute. Hau Nafarroako presoendako kaltegarria izango den ustea dago egunkari honek kontsultatutako guztien artean, presoek bere jatorrizko inguruarekin duten harremana hautsiko litza-tekeelakoan baitaude. «Legeak agintzen duenaren kontra doa» —dio Martin Oteiza Salhaketa-koak— «eta lan soziala eta presoan eskubideak defenditu

beharrean, irizpide ekonomizistak daude tartean». Presondegiaren beraren izakerari buruzko eztabaidaren atzetik, eraikin hauen egungo betebeharrarena dago. Salhaketa taldeak horrelako egitasmo erraldoiak «dagoeneko porrot egin duen proiektu bat irautarazteko ahaleginak besterik ez» direla uste du. «Espetxearen bitartez ezin da presoaren bergizarteratzea lortu, horretan ahalegindu beharrean, errentagarritasuna eta bigilantziari ematen zaio garrantzia».

«Alternatibak?: imajinazio falta»

A.B. / IRUÑEA

■ Ez dugu kartzela berri baten beharra. Orain daukagunarekin nahikoa eta sobera». Angel Ruiz de Erantxun Iruñeko Abokatuen Elkargoaren presidentearen iritzia bat dator presoekin harreman estua duten guztienarekin, baina alternatibak bilatzeko orduan, adostasunik ez dago. «Alternatibak zailak dira, oso mota ezberdinetako presoak baitaude kartzelan». Javier Asiain Iruñeko presondegiaren gizarte laguntzaileak ere gogor kritikatu du kartzela berrirako egitasmoa, baina alternatibak aurkitzeko «imajinazio falta handia» dagoela azpimarratu du. «Estatu eta gizarte orok, delituaren aurrean, beti izan du jarrera berbera: askatasuna kentzea. Horretaz gain, ez da inoiz bestxerik izan».

'Imajinazio falta' honen aspirina aurkitzeko saio ugari izan dira historian zehar, baina teoria



Angel Ruiz de Erantxun. J.L.

asko eta praktika gutxi izan da atarramendu bakarra, eta Salhaketa taldeak egin duen txostenean presondegi berriei baino presondegiari berari zenbait alternatiba aurkezten dizkio. Tartean proposamen ezagunak —egun martxan dauden erregi-

men irekiko zentroen zabalpena, bergizarteratze zentroak, gaur egungo presondegien ezaugarrien aldaketa—, baina baita zigorrak despenalizatzeko zenbait ahalegin ere. Horrela, presoan aldeko taldeak behin-behineko kartzela zigorraren lege murrizketa aipatu du —1991n, Iruñeko espetxean zeuden presoan % 32k behin-behineko kartzela zigorra zuten—. Halaber, alkoholaren eraginaren menpean gidatzea eta ondasunaren kontrako delituen kartzela zigorra murriztea proposatu dute bertan. Horrekin batera, akusatua eta kaltetuaren arteko adiskidetzeta ezarri beharra azpimarratu dute. Izan ere, gaur egungo Kode Penalak ez du aintzat hartzen biktimak, eta behin kaltea egin ondoren, Estatuak berak paratzen du salaketa, eta epaitegira azaltzera behartzen. «Ondasunaren kontrako delituak —% 80— konpontzeko bidea izan daiteke», dio Oteizak.

Fermin Castiella

HIESA egitasmoaren koordinatzailea

Joan den astean Estatu espainiarreko HIESaren Kontrako II. Jardunaldiak izan ziren Bilbon. Bertan Estatuan HIESaren kontrako borrokak bizi duen egoera, eta HIESa bera izan ziren aztergai.

Nafarroan HIESaren kontrako borrokaren egoera aztergaitzat hartuta, NAFARKARIAk Fermin Castiella Nafarroako Gobernuaren HIESaren Kontrako Egitasmoaren koordinatzaileari elkarrizketa egin dio.

«Prebentzioa da arma bakarra»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— Joan den astean Estatu espainiarreko HIESaren Kontrako II. Jardunaldiak egin ziren Bilbon. Jardunaldi horietan erakunde ofizialek oro har, HIESaren kontrako borrokan arreta galdu egin dutela salatu zuten adituek. Nafarroan gauza bera gertatu al da?

FERMIN CASTIELLA.— Nafarroan aldaketa politikoez —hau da, Nafarroako Gobernuaren eskualdatzea, eta aurrekontuan onartzearen atzerapenak— gure lana zertxobait oztopatu badute ere, Nafarroako Gobernuaren HIESaren Kontrako Egitasmoaren erronkari eutsi diogu, aldaketa handiegirik gabe. Egun egiten ditugun ekintzak ez dira aurrekoak bezain ikusgarriak, baina bai ordea eraginkorragoak.

EGUNKARIA.— Zeintzuk dira ekintza horiek?

CASTIELLA.— Prebentzioa da garrantzitsua, hori baita HIESaren aurkako arma eraginkor bakarra. Oraingo ez dago txertorik, ezta tratamendu etiologiko eraginkorrik, beraz, helburu nagusia gaixotasunaren hedatzea eragozte da. Nire ustez, informazio orokorrari buruzko kanpaina gehiagoren beharrik ez dago, oro har jendeak ongi baitaki transmisio bideak zeintzuk diren. Orain lortu behar duguna zera da, jendearen zenbait ohitura aldatzea. Bide horretatik jo behar dugu orain, eta horretarako giza talde jakin batzuei gai jakin batzuen inguruan informazio sakonagoa eman behar diegu.

Esate baterako, HIESaren Kontrako kit-a bide egokia da drogazaleei informazioa emateko. Horren bidez xiringak arriskurik gabe zakarrontzira botatzeko aukera ematen diegu, klo-

rorik gabeko ur egokia ematen diegu edozein putzutik har ez dezaten, eta lagunaren xiringa ez erabiltzea gomendatzen diegu. Bide batez, botikari eta drogazaleen arteko harremanak errazten ditugu. Botikaria drogazalearen aholkulari itzela izan daiteke, eta hori dela eta botikariekin ere lan egin nahi dugu.

EGUNKARIA.— Jakina denez, Calixto Aiesa Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak kit horretatik preserbagailua kentzea erabaki zuen. Zer deritzozu horri?

CASTIELLA.— Nik ez dut erabakia ona edo txarra den aztertu behar. Kontseilariak erabaki hori hartzen badu, nik egin behar dudana zera da, erabakiaren alderdi onak aprobetxatu, erabakia gustatu edo ez gustatu. Hori gobernu honen eta beste edozein gobernuarekin gertatzen da. Adibidez, langabetuei ematen zaizkien laguntzak murrizten direnean guk erabakia onartu beharra dugu, gusztatzen ez bazaigu ere.

Kit-ari dagokionez, nire ustez ez da soilik barnean dakarrena. Drogazaleari gauza erakargarri bat eskeintzen diozu, informazio gehiago ematen diozu, botikaria eta drogazalearen arteko erlazioak bultzatzen dituzu... Lehen egiten ez genituen gauzak egiten ditugu. Botikaria drogazale guztiekin harremana duen profesional bakarra da, eta hori aprobetxatzea oso garrantzitsua da.

EGUNKARIA.— Egun Nafarroan dauden ehun HIESdunek sarritan lau hilabete itxaron behar izaten dute ospitalera ailegatu ahal izateko.

CASTIELLA.— Bai. Aurretik hori gertatuko zela antzematen zen. Alde batetik gero eta gaixo gehiago dago, eta bestetik HIESdun guztiak Iruñeko ospi-



HIESaren kontrako Batzordearen kidea izan da Castiella. JOXE LACALLE

taletara ekartzen ditugu. Hori dela eta zerrendak mardultzen dira, eta gero eta mardulagoak izanen dira horrela jarraitzen badugu. Irtenbidea oinarriko atentziorako zentroetan dago. Zentro horietako medikuek HIESdunen tratamenduan parte hartu beharko lukete, eta ospitaleek modu horretan gaixo larriekin ariko lirake. Horretarako oinarriko atentziorako zentroetako medikuei laguntza eman beharko zaie.

EGUNKARIA.— Orain arte Nafarroan 68 haur seropositibo jaiotzen dira. Horietatik lau besterik ez dute gaixotasuna garatu. Zer gertatzen da gainontzekoekin?

CASTIELLA.— Esan bezala, antigorputzekin jaiotzen diren 68 haur horietatik lau besterik ez dira gaixotu, baina egon badaude oraindik ere gaixotu daitezkeenak. Lehen 18 hilabetetan haur gehienek antigorputzak galtzen dituzte. Haur horiek ordutik aurrera ez dira seropositiboak, eta

HIESaren Kontrako Egitasmoak egun egiten dituen ekintzak ez dira aspaldi-koak bezain ikusgarriak, baina bai ordea eraginkorragoak».

HIESa hartzeko beste edonork adina aukera daukate. Hemezortzi hilabete horietan antigorputzak desagertzen ez direnean ordea, haurrak seropositibo izaten jarraituko du.

EGUNKARIA.— Bilboko jardunaldietan instituzio ofizialek Gobernu Kanpoko Erakundeak baztertzen dituztela salatu zen. Iaz Nafarroako Gobernuaren HIESaren Kontrako Egitasmoak ez zuen HIESaren Kontrako Hiritar Komisioarekin (HKHK) inolako harremanik eduki. Nolakoak dira bien arteko harremanak?

CASTIELLA.— Orain arte material banaketa eta informazio kanpaina egin ditugun bakoitzean HKHK-koengana jo dugu, bertako kideek HIESa zer den ongi ezagutzen dutenez, lan horretan aritzeko talderik aproposena delako. Egun ordea, ez dugu era horretako kanpainarik egiten, eta ez dugu haiengana jotzen, baina edozein momentutan laguntzarik behar badugu haiengana joko dugu dudarik gabe; izan ere, harremanak ez ditugu bertan behera utzi, etenaldi bat besterik ez da. Nik neuk gainera harreman sakona dut batzordeko kide batzuekin. Bestalde, guztion artean talde berri batzuk sortu ditugu. Sare izenekoa esate baterako. Elkarte horretan HIESdunek laguntza ematen diete beste HIESdunei.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA



KLASIKO HAU EUSKARATE-AREKIN NIRE HELBURUA LORTU DUT: NIRE APALTA-SUNATIK, NIRE INDARREN NEURRIAN, ZEOZER ERANSTEA LITERATUR ESPARRU ABERATS HONI, IZAN DIRELAKO GARA ETA GUOS GUOS GUOS GUOS

